

# Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## O.K. Corraleko hasiberriak

TOMBSTONE, ARIZONA (AEB), 1881EKO URRIAREN 26A. Arratsaldeko hirurak inguruan AEBetako duela basatiena eta ezagunena gertatu zen O.K. Corral ukiularen aurrean. Aurrez aurre, Mendebaldeko pistoladun azkarrenak eta zehatzenak: zintzoen bandoan, Wyatt, Virgil eta Morgan Earp anaiak eta John Holliday; gaiztoen artean, berriz, Ike Clanton, Billy Clanton, Tom McLauri, Frank McLauri eta Billy Claiborne. Nola ez, legearen eta ordenaren ordezkariak gaizkileak menpean hartu zituzten eta Wyatt Earp, tiroketatik zauririk gabe irten ondoren, heroi bihurtu zen. Edo horixe kontatu digute, behintzat, gertakaria hizpide izan duten film gehienek: *My Darling Clementine* (1946), *Gunfight at the O.K. Corral* (1957), *Tombstone* (1993), *Wyatt Earp* (1994)...

Baina errealitatea oso bestelakoa izan zen. Hasteko, tiroketa ez zen gertakariari izena eman zion ukiularen parean izan. O.K. Corralen atzealdean izan zen, Fly's ostatuaren, argazki estudio baten eta McDonald laborategiaren artean, eta Fremont kalean amaitu zen.

Alderdi sakonagoetara joz, zintzoen eta gaiztoen arteko borrokaren atzean lehia konplexuagoa dago. Earp anaiak Tombstoneko aguazilak ziren eta, zentzu horretan, egia da legearen ordezkariak zirela. Eta arerioek zenbait delitu burutu zituzten, ganadu lapurretan ari tuak ziren. Baina ez dirudi gaizkileak Tombstone gorrortatuak zirenik, besteak beste Johnny Behan sheriffaren babesa baitzuten. Herritar askoren ustez, aguazilak herriaren interesen aurka eta beren onurarako legea inposatzen zuten arrizkak ziren. Zenbait historialarik aurreko belaunaldiak bizitako Gerra Zibilaren arrastoak ikusi ditu gatazka honetan; earptarrak gerra irabazi zuten yankee-en oinordekoak lirateke, eta besteak konfederatuen bandokoak.

WWW.THEMOVIEDB.COM



*Gunfight at the O.K. Corral* (1957) filmaren afixa. Benetako tiroketak ez zuen zerikusirik westernetan ikusi ditugun eszenekin.

Bestalde,, tiroketaren bederatzi protagonistak ez ziren inola ere westernek erakutsi dizkiguten tiratzaile trebeak. Virgil Earp eta Billy Claiborne ez beste guztiek, orduko hartan hartu zuten lehen aldiz parte tiroketa batean. Gainera, Claibornek ez zuen bere esperientzia erabili, tiro bat bera ere bota gabe ihes egin baitzuen duelutik. Ez dago garbi nor izan zen sua hasten lehena, baina 30 segundo ingurutan 30 tiro bota zituzten. Tiratzaileen abilezia eskasa kontuan hartuta, Wyatt Earpek zauririk ez izatea ez da miraria. Harritzekoagoa da McLauri anaiak eta Billy Clanton hil izana eta Morgan Earp, Virgil Earp eta John Holliday zauritu izana.

Baina halako ikuskizun tamalgariak ez luke ondo emango zinema pantailetan.


## Arrastoak

### Musika kataroa berreskuratu dute

JORDI SAVALL musikari katalana buru duen talde batek katarok bost mendetan sortutako musika berreskuratzeko ahalegina egin dute. Eraitza, *Le Royaume Oublié* (Erresuma ahaztua) izenburuko bilduma, berriki kaleratu dute Aliavox etxearen eskutik. Orain artean kataroen musika arrasto gutxi batzuk baino ez ziren gordetzen, baina Savallen lantaldeak horiek bildu, osatu eta hiru CDz osatutako bilduma paratu dute.

Diskoekin batera Erdi Aroko mugimendu heretikoaren historia ere jasotzen du argitalpen honek. Testuak zazpi hizkuntzatan daude; besteak beste, okzitanieraz.

WWW.CLASSICTOLOUSE.COM



*Le Royaume Oublié* musika katarari buruzko bildumaren azala. Jordi Savall katalanak zuzendu du lan hau.